

9. KOSTUEN EGITURA

Gure enpresak izango dituen kostu garrantzitsuenak ondorengoak dira:

- Kostu fikoak: furgoneta bat, lurraren alokairua, konposteraren egiturak, makineria/tresneria (lurra lantzekoak; atxurra, sardea, karretila, pala, guraizeak...), negutegia (urte guztian zehar produktuak ekoitzi ahal izateko, hala ere, sasoian sasoikoa ekoizten saiatuko gara), kotxearen, lurren eta langileen segurua.
- Kostu aldakorra: erregaia, ura, argia, langileon soldata.

Eskala-ekonomikoak: bertoko enpresei eskatuko diegu gure konposteraren egitura egitea, garestiagoa izan arren gure inguruko ekonomia sustatu nahi dugulako, eta beraz gehiago ordaindu beharko dugu honen truke.

Hedapen-ekonomia: Enpresa honek, etekin eta eskari handia badu, beste egoitza batzuk zabalduko genituzke leku ezberdinetan, bati ere Euskal Herri mailan, bertakoa eta sasoikoa onetsiko dugulako eta honen alde jardungo dugulako.

Bukatzeke argi dugu, gure enpresaren negozio-eredua ez dela pezio baxuak izatea. Horren ordez, kalitatezko, bertoko produktu ekologiko eta osasuntsuak eskainiko ditugu.